



AKTA

Aiarako Kuadrillako **KUADRILLAKO BATZARRAK** eginiko **ezohiko bilkurakoa**.

2022ko URRIAren 6a

Amurrioko Udalaren udaletxeko **osoko bilkuren aretoan, 13:05ean, ezohiko bilkurari** hasiera eman zaio, **lehenengo deialdian, Encina Castresana Astarloa Kuadrillako presidentea** buru dela, eta jarraian zerrendatzen diren batzarkideak bertaratuta. Gianfranco Ghiro Alonso jauna, behean sinatzen duena, aritu da behin-behineko idazkari-lanetan.

Honako batzarkide jaun-andre hauek bertaratu dira:

Encina CASTRESANA ASTARLOA (EAJ-PNV)
Alberto ARTETXE VICENTE (EAJ-PNV)
Ander AÑIBARRO MAESTRE (EAJ-PNV)
Eva MARQUÍNEZ BLANCO (EAJ-PNV)
Iñigo PINEDO VADILLO (EAJ-PNV)
Nuria LÓPEZ LUMBRERAS (EAJ-PNV)
Txerra MOLINUEVO LAÑA (EAJ-PNV)
Gentza ALAMILLO UDAETA (EAJ-PNV)
Ixone SARATXAGA IBARRETXE (EAJ-PNV)
Andoni RODRÍGUEZ ORÚE (EAJ-PNV)
Aitor BURGOA MARTÍNEZ (EH-BILDU)
Irene ITURBE ERRASTI (EH-BILDU)
Karmele POBLACIÓN MARTÍNEZ (EH-BILDU)
Maitane SALUTREGI GARDEAZABAL (EH-BILDU)
Joseba VIVANCO RETES (EH-BILDU)
David ROMERO CAMPOS (PSE-EE)
María Dolores MURIEL AROCA (PSE-EE)
Álvaro BARRIOS MEDINA (OMNIA)
Nerea GONZÁLEZ GARCÍA (OMNIA)
Sergio TATO EGUREN (OKONDO AURRERA)

Ez dira etorri, eta ezin etorria adierazi dute, honako batzarkide hauek:

Juan José ESCUZA DEL CAMPO (EAJ-PNV)
Maite CORTÁZAR AGÜERA (EAJ-PNV)
Monserrat ANGULO SOLLOA (EAJ-PNV)
Arkaitz SAN JOSÉ MARTÍNEZ (EH-BILDU)
Iñaki IBARLUZEA ORTUETA (EH-BILDU)



Jon BERGANZA URRUELA (EH-BILDU)
Naiara OTAOLA GONZÁLEZ (EH-BILDU)
Iratxe PARRO UZQUIANO (AIARA BATUZ)

Kuadrillako presidentek hasiera eman dio bilkurari, **lehen deialdian, 13:05ak direnean**, idazkariak Kuadrillak arautzen dituen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.c) artikuluari dagokionez (lege hori, besteak beste, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatu zuen), **lehen deialdian**, bilera abiarazi ahal izateko quoruma dela egiaztatu ondoren, eta saiorako ezarritako aztergaien zerrendari jarraitu zaio.

1.- AZKEN BILKURAREN AKTEN ZIRRIBORROA IRAKURTZEA ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA.

2022ko maiatzaren 30ean eginiko azken bilkuraren aktaren zirriborroa erantsi zaio aztergaien zerrendari, aztertu ahal izateko.

Aho batez ADOSTU DA 2022ko maiatzaren 30eko bilkuraren akta onestea.

2.- LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA ONESTEA, HALA BALEGOKIO

Presidenteak jakinarazi du deialdiarekin batera Lanpostuen Zerrenda aldatzeari dagozkien agiriak eta tramiteak dituzten dokumentuak erantsi dira.

Horretaz gain, PRESIDENTZIA, JARDUKETA ADMINISTRATIBOA FUNTZIO PUBLIKOA, KONTZEJUAK, FORU ETA AUTONOMIA ADMINISTRAZIOAREKIN ETA GAINONTZEKO ERAKUNDEEKIN HARREMANAK, OBRAK ETA ZERBITZUAK JASOTZEN DITUEN PRESIDENTZIAKO BATZORDE INFORMATIBOAK 2022ko urriaren 3an eginiko ekitaldian honako hau erabaki zuen:

Aldeko ebazpena ematea, aldeko lau boto (EAJ/PNVren hiru eta SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK alderdiaren bat) eta bi abstentzio (EH-BILDU eta OKONDO AURRERA) dituelako. Horrenbestez, honako hau ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillaren 2022ko lanpostuen zerrenda onestea eta horiek definitzea eta baloratzea, foru erakunde hori dagozkionak, eta jarraian dagoen koadroan jasotako ezaugarriak dituztela:

**AIARAKO KUADRILLA
ARABA**



**CUADRILLA DE AYALA
ALAVA**

Código	Izena	Plazak	Lan. Zer..	Eskala	Azpiesk.	Klase	Multzo	Especialitatea.	Hornidura	HE	Derrigor. Data	Betekizuna	Mugikortasuna	Destino Osag.	Os. Espezif. ¹
1	Idazkari-kontu hartzailea	1	F	AG	GNF	GN	A 1	Zuzenbide, EAZ edo gradu baliokidea	Lehiaketa	4	2011/05/05	Gidabaimena	BAI	26	29.368,73 €
2	Kontabilitate eta kontu-hartzailetzako admin.	1	F	AG	Admboa	-	C 1	Batxilergo, Administrazioko Goi Maila eta gradu baliokidea	Lehiaketa-Oposizioa	2	2011/05/05	Gidabaimena	BAI	14	20.124,31 €
3	Ekonomia sustatzailea	1	F	AE	TEK	GMT	A 1	EAZ edo gradu baliokidea	Lehiaketa-Oposizioa	3	Ez derrig.	Gidabaimena	BAI	21	23.560,97 €
4	Sustatzaile sozio-kulturala	1	F	AE	TEK	EMT	A 2	Unibertsitateko Diploma	Lehiaketa-Oposizioa	3	2011/05/05	Gidabaimena	BAI	17	20.721,15 €
5	Hizkuntza politikaren normalizatzailea (euskeraz)	1	F	AE	TEK	EMT	A 2	Unibertsitateko Diploma	Lehiaketa-Oposizioa	4	TP	Gidabaimena	BAI	17	20.721,15 €
6	Hirigintzako, obretako eta ingurumeneko teknikari balioanitzza	1	F	AE	TEK	GMT	A 1	Ingeniaritza, Arkitektura, Biologoa o Ingurumen Zientziak gradua	Lehiaketa-Oposizioa	4	2011/05/05	Gidabaimena	BAI	24	26.807,03 €
7	Berdintasun teknikaria	1	F	AE	TEK	GMT	A 1	Unibertsitateko Gradua	Lehiaketa-Oposizioa	4	2022/10/31	Gidabaimena	BAI	23	22.824,00 €
8	Arkitektoa/lanaldi partziala ⁱⁱ	2	F	AE	TEK	GMT	A 1	Arkitekturako Gradua	Lehiaketa-Oposizioa	4	Ez derrig.	Gidabaimena	BAI	24	24.964,00 €
9	Aparejadorea/lanaldi partziala ⁱⁱⁱ	2	F	AE	TEK	EMT	A2	Arkitektura Teknikoa eta Eraikuntza edo baliokidea	Lehiaketa-Oposizioa	3	Ez derrig.	Gidabaimena	BAI	23	22.824,00 €
10	Artxiboko administraria	1	F	AG	Admboa	-	C 1	Batxilergo, Administrazioko Goi Maila eta gradu baliokidea	Lehiaketa-Oposizioa	2	2017/05/11	Gidabaimena	BAI	17	19.229,96 €
11	Administrazioko laguntzailea	1	F	AG	Admboa	-	C 2	Eskolako Gradua, Erdi Mailako Gradua edo baliokidea	Lehiaketa-Oposizioa	2	2022/10/31	Gidabaimena	BAI	11	18.669,34 €
12	Gizarteko ongizateko administrazio-laguntzailea	1	F	AG	Admboa	-	C 2	Eskolako Gradua, Erdi Mailako Gradua edo baliokidea	Lehiaketa-Oposizioa	2	2022/10/31	Gidabaimena	BAI	11	18.669,34 €

¹ Lanaldi osoa

¹ Lanpostuak lanaldiaren %60 eta %66koak dira

¹ Bi lanpostuak lanaldiaren %60koak dira



González García andreak (OMNIA juntetako alderdi politikoko kidea dela baliatuta) adierazi du Lanpostuen Zerrendaren aldaketa honi buruz OMNIA, Okondo Aurrera eta Aiara Batu juntetako taldeek maiatzean idazki bat aurkeztu zutela eta badaudela haiek aurkeztutako bi kontu Lanpostuen Zerrenda honetan jasota ez daudenak. Haiek hamaika urtez ibili dira eskatzen Lanpostuen Zerrenda berria eta iragarri du kontra bozkatuko dutela honako bi arrazioi hauengatik:

- Zenbait lanpostutan ez daude jasota Kuadrillak benetan dituen beharrak eta zenbait lanaldi handitu beharko lirateke Kuadrillako bizilagunei zerbitzu hobea eskaintzeko.
- Bost lanpostuk ez daukate Derrigorrezkotasun Data eta horren ondorioz ez daude bermatuta bizilagunen hizkuntza eskubideak.

Urriaren 5ean talde horiek eskatu zuten Lanpostuen Zerrendaren aldaketa blokeka bozkatzea. Euren iritziz, prozesu honi etenaldia eman behar zaio, negoziazioak hasi eta bozkatzen denaren inguruan adostasunak lortu behar dira.

Lanpostuen Zerrenda “Ad Hoc” egiten ari da oraingo langileak betikotzeko, eta auzokoen beharretara egokitu beharko litzateke. Beharrok lanpostuen zerbitzuek eta kostuak eraginda daude. %100 izatera pasatuko litzatekeen lanpostu batek FOFFELen dirulaguntza jasoko luke eta ez litzateke beste dirulaguntzarik bilatu behar lanpostu horretarako.

Kuadrillak bere motxilan eramango dituen egoera batzuk behin eta berriro errepikatzen ari dira. Bilerak eta akordioak eskatu izan ditugu, baina alferrik. Horregatik guztiagatik aldaketaren aurka daude. Sortzen diren lanpostuak egokiak izan daitezela eta Kuadrillako beharrak jaso ditzatela saiatzea da haien eginbeharra.

Iturbe Errasti andreak (EH-BILDU juntetako alderdi politikoko kidea dela baliatuta) adierazi du Lanpostuen Zerrenda honek arazo batuk dituela. Hainbat gai ez ditugu oraindik jorratu: zer nolako Kuadrillak nahi dugun eta zein zerbitzuek eskaini nahi dugun, eta, halaber, ez da aldatu bost lanpostuk ez dutela derrigorrezkotasun data. Ez dute akordio hau bultzatu nahi euren iritzia ez direlako aintzat hartu. Kuadrillaren beharrak egoki aztertu behar dira eta euskara babestu. Haien ustez Lanpostuen Zerrenda hau modu honetan onestea ez da egokia.

Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV juntetako alderdi politikoko kidea dela baliatuta) kontsentsu eta akordioei buruz hitz egin dugu eta lehenik eta behin balioa eman nahi dio presidentziak eta Kuadrillako langileek hartutakok akordioari, plantillako langile guztiak ados egon direla. Kuadrillaren beharrak ez dituela betetzen esan dute eta udaletxe guztiak hitz egin da jakiteko zein diren bakoitzaren beharrak eta horrela jasota uztea Lanpostuen Zerrendan. Hamahiru lanpostuetatik %61k derrigorrezkotasun data daukate eta legeak %44 eskatzen du. Halaber, gehitu da euskaraz zerbitzua eskaintzen duten pertsonen kopurua. Honako hau trantsizioa da eta hizkuntza eskakizun hobeak tinkotzeko.

González García andreak (juntetako alderdi politikoko kidea dela baliatuta) adierazi du Parro Uzquiano andreak ez duela etortzerik izan laneko arazoak izan dituelako eta berarekin izaniko elkarriketarekin bat eginez OMNIAren iritziarekin erabat bat dator. Adierazi du arreta ematen diotela Kuadrillako trantsizioek. Aurretik izan dugun egoera behin eta berriro errepikatzen da eta gaur egun dauzkagun langileak lan kontratudunak edo kanpokoak dira.



Bestalde, sindikatuekin hitz egin da, baina atzo jakin dute langileen ordezkaria aldatu dela eta aurretik ez dira saiatu berarekin hitz egiten.

Hasiera-hasieratik oso argi hitz egin dute eta ez dago akordioa oso jarrera kontrajarriak daudelako. Proposamen bat egon da eta ez dute aldatu nahi izan eta ez daude “Ad Hoc” aldaketan alde.

Hau ez da etorkizuneko Kuadrillak hartu behar duen bidea eta ez dute utziko den Lanpostuen Zerrendaren arduradunak izan nahi.

Iturbe Errasti andreak (EH-BILDU juntetako alderdi politikoko kidea dela baliatuta) derrigorrezkotasun portzentajeen inguruan adierazi du ez dugula %61 horrekin geratu behar; izan ere, denok dakigu derrigorrezkotasun datarik ez duten bost lanpostu horien eragina zein izango den.

Honen inguruan beste eztabaidarik ez dagoela ikusita, bozkatu da eta gehiengoa duela; aldeko hamabi boto (EAJ/PNVren hamar eta SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAKen bi) eta kontrako zortzi boto (EH-BILDUren bost, OMNIAREN bi eta OKONDO AURRERAREN bat) jaso ostean, **ERABAKI DA AKORDIO HAU HARTZEA:**

LEHENENGOA.- Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillaren 2022ko lanpostuen zerrenda onestea eta horiek definitzea eta baloratzea, foru erakunde hori dagozkionak, eta jarraian dagoen koadroan jasotako ezaugarriak dituztela:

**AIARAKO KUADRILLA
ARABA**



**CUADRILLA DE AYALA
ALAVA**

Código	Izena	Plazak	Lan. Zer..	Eskala	Azpiesk.	Klase	Multzo	Especialitatea.	Hornidura	HE	Derrigor. Data	Betekizuna	Mugikortasuna	Destino Osag.	Os. Espezif. ^{iv}
1	Idazkari-kontu hartzailea	1	F	AG	GNF	GN	A 1	Zuzenbide, EAZ edo gradu baliokidea	Lehiaketa	4	2011/05/05	Gidabaimena	BAI	26	29.368,73 €
2	Kontabilitate eta kontu-hartzailetzako admin.	1	F	AG	Admboa	-	C 1	Batxilergo, Administrazio Goi Maila eta gradu baliokidea	Lehiaketa-Oposizioa	2	2011/05/05	Gidabaimena	BAI	14	20.124,31 €
3	Ekonomia sustatzailea	1	F	AE	TEK	GMT	A 1	EAZ edo gradu baliokidea	Lehiaketa-Oposizioa	3	Ez derrig.	Gidabaimena	BAI	21	23.560,97 €
4	Sustatzaile sozio-kulturala	1	F	AE	TEK	EMT	A 2	Unibertsitateko Diploma	Lehiaketa-Oposizioa	3	2011/05/05	Gidabaimena	BAI	17	20.721,15 €
5	Hizkuntza politikaren normalizatzailea (euskeraz)	1	F	AE	TEK	EMT	A 2	Unibertsitateko Diploma	Lehiaketa-Oposizioa	4	TP	Gidabaimena	BAI	17	20.721,15 €
6	Hirigintzako, obretako eta ingurumeneko teknikari balioanitzza	1	F	AE	TEK	GMT	A 1	Ingeniaritza, Arkitektura, Biologoa o Ingurumen Zientziak gradua	Lehiaketa-Oposizioa	4	2011/05/05	Gidabaimena	BAI	24	26.807,03 €
7	Berdintasun teknikaria	1	F	AE	TEK	GMT	A 1	Unibertsitateko Gradua	Lehiaketa-Oposizioa	4	2022/10/31	Gidabaimena	BAI	23	22.824,00 €
8	Arkitektoa/lanaldi partziala ^v	2	F	AE	TEK	GMT	A 1	Arkitekturako Gradua	Lehiaketa-Oposizioa	4	Ez derrig.	Gidabaimena	BAI	24	24.964,00 €
9	Aparejadorea/lanaldi partziala ^{vi}	2	F	AE	TEK	EMT	A2	Arkitektura Teknikoa eta Eraikuntza edo baliokidea	Lehiaketa-Oposizioa	3	Ez derrig.	Gidabaimena	BAI	23	22.824,00 €
10	Artxiboko administraria	1	F	AG	Admboa	-	C 1	Batxilergo, Administrazio Goi Maila eta gradu baliokidea	Lehiaketa-Oposizioa	2	2017/05/11	Gidabaimena	BAI	17	19.229,96 €
11	Administrazioko laguntzailea	1	F	AG	Admboa	-	C 2	Eskolako Gradua, Erdi Mailako Gradua edo baliokidea	Lehiaketa-Oposizioa	2	2022/10/31	Gidabaimena	BAI	11	18.669,34 €
12	Gizarteko ongizateko administrazio-laguntzailea	1	F	AG	Admboa	-	C 2	Eskolako Gradua, Erdi Mailako Gradua edo baliokidea	Lehiaketa-Oposizioa	2	2022/10/31	Gidabaimena	BAI	11	18.669,34 €

¹ Lanaldi osoa

¹ Lanpostuak lanaldiaren %60 eta %66koak dira

¹ Bi lanpostuak lanaldiaren %60koak dira



3.- HALA BALEKIO, 2021EKO KONTU OROKORRA ONESTEA

Presidente andreak adierazi du OGASUN, FINANTZA, AURREKONTU, SUSTAPEN EKONOMIKO, ENPLEGU, BERRIKUNTZA ETA TURISMO BATZORDEAK 2022ko ekainaren 17an eginiko ekitaldian honako hau erabaki zela:

Aiarako Kuadrillak 2021ean izango duen Kontu Orokorraren aldeko irizpena aho batez ematea.

Honen inguruan beste eztabaidarik ez dagoela ikusita, bozkatu da eta aho batez **ERABAKI DA AKORDIO HAU HARTZEA:**

GERTATU DA KUADRILLAKO 2021eko KONTU OROKORRAK onesteko prozedurarako ezarritako izapideak bete direla, Arabako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauaren 63. artikuluan ezarritakoaren arabera.

IKUSI DA 2021 ekitaldiko Kontu Orokorrak Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 3ko 56/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsitako toki-erakundeen kontabilitate-jarraitubidean jasotako dokumentuak biltzen dituela.

IKUSI DA Kuadrillako 2019ko Kontu Orokorra aipatutako 3/2004 Foru Arauaren eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenen arabera egin dela. Izapide hau bete da:

LEHENENGOA.- Kontu orokorra onesteko espedienteak izapide hauek bete ditu:

- 1.- Saileko Informazio Batzordearen txostena.
- 2.- Kontu orokorra eta Kontu Batzordearen txostena jendaurrean jartzea 15 eguneko epean, ALHAOn argitaratua ekainaren 29an, 72. zenbakian.
- 3.- Erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik egon ez izanaren ziurtagiria, 2002ko uztailaren 22koa.
- 4.- Aurreko guztiak aintzat hartuta, Kuadrillako 2019ko Kontu Orokorra Kuadrillako Batzarrak onetsi beharko du.

BIGARRENA.- Azaldutakoa ikusita, onestea Aiarako Kuadrillako 2021eko Kontu Orokorra.

HIRUGARRENA.- Kontu Orokorra onetsi ondoren, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren esku geratuko da, berariazko araudian ezarritako moduan.



LAUGARRRENA.- Era berean, kontu orokorrak ondarearen altei, bajei eta mugimenduei buruzko datu guztiak jasotzen ditu, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 31. artikuluan aipatzen den inbentarioa zuzendu ahal izateko.

4.- HALA BALEGOKIO ONESTEA HIRI HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUREN KONTRATUA HANDITZEA.

Presidente andreak adierazi du INGURUMEN BATZORDEAK 2022ko urriaren 3an eginiko ekitaldian honako hau erabaki zela:

Aldeko irizpena ematea aho batez eta proposatzea har dadila honako **ERABAKIA:**

IKUSITA Aiarako Kuadrillako etxeko hondakinak eta horren parekagarriak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren kontratazioa arautzen duten administrazio baldintzetako 23. Artikulua.

IKUSITA arloko teknikariak eginiko balorazio txostenak, peoi-gidari baten lanaldia %83 handitzeko aurkeztutakoen ingurukoak eta 1121 2022/51/S02.01.03.02 espedientean jasota daudenak.

ERABAKI DA

LEHENENGOA. - 621 227991 aurrekontu-partidaren kreditua 10.000 euroan handitzea eta Mankomunitateko udalek ekarpen handiagoa egitea hori ordaintzeko. Halaber, 2023ko aurrekontuetan kreditua gehitzeko konpromisoa hartu du gehikuntza honi aurre egiteko behar den kopuruan.

BIGARRENA.- Aiarako Kuadrillako etxeko hondakinak eta horren parekagarriak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren kontratuaren gehikuntza adjudikatzea PREZERO IBERIA SL enpresari (IFK: A8274106); horretarako, peoi-gidari baten lanaldia %83 handituko da, hori guztia 26.977,06 € gehi BEZari dagokion 2.697.71 €-ko prezioa duen aurkezturiko aurrekontuari lotuta, hau da, HOGEITA BEDERATZI MILA SEIEHUN ETA HIRUGEITA HAMALAU KOMA HIRUROGEITA ZAZPI EURO (29.674,77 €) BEZ barne urteko.

Barrios Medina jaunak (OMNIA juntetako alderdi politikoko kidea dela baliatuta) bi gauza azaldu nahi ditu: alde batetik, tristea dela administrazioek beti ordaindu behar izatea enpresei errentagarriak ez diren negozioak egiteagatik, nahiz eta ardura osoa eurek hartu beharko luketen eta kontuan hartuta oraingo egoera ez dela normala; bestetik zerbitzu hau eman behar da, nahiz eta Laudiori ez dion eragin prezio horren gehikuntzak eta bai landa guneei, eta hori guztia kontuan hartuta Laudioek %50 ordaintzen duela.



Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV juntetako alderdi politikoko kidea dela baliatuta) OMNIARI eskerrak eman nahi dizkio landa guneeetan laguntzeagatik, nahiz eta uste izan OMNIAK ez zuela izan ingurumeneko ekitaldian egoteko aukera, eta, horregatik, berak ez daki zein diren saileko teknikariak azaldu zituen zergatiak handitze hau hartzeko. Batzordean emaniko arrazoiak laburtzeko asmoz, handitze hau ez da zerbitzuaren kostuen handitzeari aurre egiteko, zerbitzua erabat aldatzeko baino. Honi esker, orain arte eskaini ez diren zerbitzuak emango dira.

Barrios Medina jaunak (OMNIA juntetako alderdi politikoko kidea dela baliatuta) adierazi du Laudio bezala beste herriak ere zaintzen dituztela. Solidarioak dira eta horrela izan behar dira, nahiz eta Arabako Foru Aldundiak ez duen berdin egiten Aiararekin. Izan ere, Eusko Jaurlaritzarako hauteskundeetan biztanle kopuruak ez dauka zerikusirik, hau da hiru lurraldeek parlamentario kopuru berdina dute (25). Araban, bestetik, bai. Horrenbestez, Batzar Nagusietan Aiarak 13 ordezkari izan beharrean 5 ditu.

Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV juntetako alderdi politikoko kidea dela baliatuta) argitu nahi du zerbitzuaren handitze honek eragina duela herri txikietan eta handietan.

Honen inguruan beste eztabaidarik ez dagoela ikusita, bozkatu da eta aho batez **ERABAKI DA AKORDIO HAU HARTZEA:**

IKUSI DA Aiarako Kuadrillako etxeko hondakinak eta horren parekagarriak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren kontratazioa arautzen duten administrazio pleguetako 23. artikulua.

IKUSI DA arloko teknikariak eginiko balorazio txostenak, peoi-gidari baten lanaldia %83 handitzeko aurkeztutakoen ingurukoak eta 1121 2022/51/S02.01.03.02 espedientean jasota daudenak.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA. - 621 227991 aurrekontu-partidaren kreditua 10.000 euroan handitzea eta Mankomunitateko udalek ekarpen handiagoa egitea hori ordaintzeko. Halaber, 2023ko aurrekontuetan kreditua gehitzeko konpromisoa hartu du gehikuntza honi aurre egiteko behar den kopuruan.

BIGARRENA.- Aiarako Kuadrillako etxeko hondakinak eta horren parekagarriak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren kontratuaren gehikuntza adjudikatzea PREZERO IBERIA SL enpresari (IFK: A82741067); horretarako, peoi-gidari baten lanaldia %83 handituko da, hori guztia 26.977,06 € gehi BEZari dagokion 2.697.71 €-ko prezioa duen aurkezturiko aurrekontuari lotuta, hau da, HOGEITA BEDERATZI MILA SEIEHUN ETA HIRUGEITA HAMALAU KOMA HIRUROGEITA ZAZPI EURO (29.674,77 €) BEZ barne urteko.



5.- ONETSITAKO AZKEN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Azken bilkuratik hona onetsitako Presidentzia Dekretuen berri eman da, eta hauek dira:

- 39/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa; Amurrio Bideanekin lan egiteko akordioari buruzkoa.
- 40/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa; maiatzeko nominari buruzkoa.
- 41/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, ekainaren 2koa; Ingurumen Sailaren adjudikazioa, eskolako lekualdaketa eta bolumen handikoen sentsibilizazioari buruzkoa.
- 42/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, ekainaren 3koa; ordenagailuak erosteko kreditu gehigarriari buruzkoa.
- 43/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, ekainaren 6koa; baskularen lizitazioa onesteari buruzkoa.
- 44/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, ekainaren 6koa; ordenagailuen erosketaren adjudikazioari buruzkoa.
- 45/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, ekainaren 17koa; Ingurumen Saila, eskolako lekualdaketei buruzkoa.
- 46/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, ekainaren 17koa; Legezko Datu Basearen adjudikazioari buruzkoa.
- 47/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, ekainaren 22koa; bulegoko materialaren adjudikazioari buruzkoa.
- 48/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, ekainaren 22koa; udako promozioaren adjudikazioari buruzkoa.
- 49/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, ekainaren 27koa; nagusien topaketako jardueren adjudikazioari buruzkoa.
- 50/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, ekainaren 27koa; ekaineko nominari buruzkoa.
- 51/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, ekainaren 28koa; ekaineko aparteko nominari buruzkoa.
- 52/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, uztailaren 8koa; GG eskaera eta zerbitzuak, hirugarren hiruilekoari buruzkoa.
- 53/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, uztailaren 8koa, HHSen hirugarren hiruilekoko ekarpenari buruzkoa.
- 54/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, uztailaren 29koa, administrari lanetan lehenengo lan esperientziari laguntzei buruzkoa.
- 55/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, uztailaren 29koa, uztaileko nominari buruzkoa.
- 56/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, irailaren 7koa, abuztuko nominari buruzko.
- 57/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, irailaren 15ekoa, ikastoletako prestakuntza kredituen gaikuntzari buruzkoa.
- 58/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, irailaren 16koa, gizarte langilearen ordezkapenari buruzkoa.



59/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, irailaren 20koa, Kuadrillako karpeten horniduraren adjudikazioari buruzkoa.

60/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, irailaren 28koa, iraileko nominari buruzkoa.

61/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, irailaren 28koa, lurraldeko proiektuen laguntzak – bigarren programari buruzkoa.

62/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, irailaren 30koa, Batukada ikastaroaren adjudikazioari buruzkoa.

63/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, irailaren 30koa, AFAk diruz lagundutako prestakuntza ikastaroen adjudikazioari buruzkoa.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, lege-aginduz, goian adierazitako eguneko **13:31an**, bukatutzat eman da bilkura. Akta hau presidente andreak sinatu du eta nik, behin-behineko idazkaria naizenez, sinatu eta egiaztatu dut.

PRESIDENTEA: Sinadura: Encina Castresana Astarloa

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA: Sinadura: Gianfranco Ghiro Alonso

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA
